

# ELAren proposamenak, "Nafarroa Suspertzeko Plana"ren inguruan

**Benetako irtenbide bat**

**2020ko maiatzean**



[www.ela.eus](http://www.ela.eus)

**ELA**

**EUSKAL SINDIKATUA**



## Aurkibidea

<i>0.- Sarrera.....</i>	<i>3</i>
<i>1.- Pandemiak piztu duen krisi sistemikoa.....</i>	<i>3</i>
<i>2.- Nafarroako Gobernuak Covid-19aren osasun-krisian hartu dituen neurriak.....</i>	<i>9</i>
<i>3.- "Nafarroa Suspertzeko Plana": ez dugu bidezko irtenbiderik izanen, fiskalitatea aldatu gabe.....</i>	<i>10</i>
<i>4.- ELAren proposamenak.....</i>	<i>10</i>
<i>5.- Gizarte-mobilizazioa sustatzea, austeritate-politikei aurre egiteko.....</i>	<i>14</i>

## O.- Sarrera

Txosten honetan Nafarroako ekonomia suspertzeko ELAren proposamenak bildu ditugu. Gure helburu nagusia zera da: gaur egungo krisi sistemikoaren egoerari eman beharreko erantzunetan herritar gehienek behar izan diren barmaturik uztea, eta 2008ko krisiaren ondoren aplikatutako politikak ez errepikatzea.

Dokumentu honek 5 atal ditu. Lehen atalean, krisiaren lehenagoko egoerari heldu diogu; bigarren atalean, Nafarroako Gobernuak orain arte hartu dituen erabakiei buruzko gure balioespina; hirugarrenean, Nafarroako Gobernuak plazaraturiko "Nafarroa Suspertzeko 2020-2023 Plana" aztertzen da; laugarrenean, ELAren proposamenak, krisiari irtenbide soziala emateko; eta azkenik, hori guztia lortze aldera behar den gizarte-aktibazioa azpimarratu da.

## 1.- Pandemiak piztu duen krisi sistemikoa

### 1.1.- 2008ko krisiaren ondoko austeritate-politikak alde batera utzi behar dira

- **2008ko krisia: banka salbatzea, pertsonen partez**

2008ko krisian higiezinaren merkatuaren burbuila lehertu zen, eta subprime hipoteken krisia sortu. Finantza-merkatuan sortu zen 2008ko krisia, eta Europako Banku Zentralaren (EBZ) erantzuna dirua sartzea izan zen, baina bankuen eta inbertsio-funtsen bidez. EBZak zorra erosi zien erakunde horiei, zor pribatua (korporatiboa) eta publikoa (soberana). Azken batean likidezia eman zion bankari, baina zalantzazkoa da diru hori familienganaino eta enpresetaraino inoiz heldu zen edo ez. Hau da, EBZak ardura osoa utzi zuen bankaren esku diru-kopuru itzel horiek banatzeko. Eta bankaren inguruko enpresa handi horiek erabakiko zuten zenbat mailegatuko zieten estatuei, zein baldintzatan eta zein interes-tasatan. Gerta liteke, baita ere, ez mailagatzea, ez inbertitzea, eta espekulazio-jardueretara desbideratzea.

Jokabide horren zergatia Europar Batasunaren Tratatuan dago; izan ere, hor debekatzen da banku zentratek erakunde publikoen zorpekorik baimentzea edo haiei mailegurik ematea. EBZk berak diru hori zuzenean gobernuei banatuko balie, gobernuen defizit publikoetan eragin txikiagoa izateaz aparte, diru hori iritsi behar duen lekura iristeko aukera handiagoak egonen liriteke. Puntu horrekiko, gogoratu behar da ELAK EZEZKOAREN aldeko kanpaina egin zuela Europako Konstituzioaren Tratatuan, ez zituelako errespetatzen ez lan-eskubideak, ez eskubide sozialak, ez herrienak, eta gero eta demokrazia gutxiagoko Europa gotorleku baten ideia finkatzen zuelako.

Banku zentralak politika hedatzaile horien bidez lortu nahi duten helburu nagusia banka abalatzea izan da, bai eta finantza-merkatuak lasaitzea eta enpresei likidezia ematea ere. Horri gehitu behar zaio interes-tasaren beherapen-politika, eta orobat finantza-erakundeei emandako diru-kopuru izugarrien epe laburreko mailegua.


Politika horiek muturreraino eraman diren garaian koronabirusaren krisia sortu da. Beraz, politika horien norabide okerraz gain, politiken eragin-indarra gero eta ahulagoa da.

- **Zor publikoaren negozioa**

2020an Nafarroako aurrekontu osoaren %7,7 joanen da zor publikoa ordaintzera eta horren interes eta gastuetara, 66 milioi euro 2020an. 2008tik 2020ra, 3.707,3 milioi euro ordainduko dira zor publikoan.

Hala ere, Nafarroako zor bizia 3.297,4 milioi eurokoa izan da 2019ko abenduan. Egia da azken 2 urteetan %9,1 murriztu dela, baina 2007tik izandako bilakaerari begiratuz gero, %411ko igoera izan duela ikusiko dugu. Hori da 2008ko krisiaz geroztik aplikatzen ari diren politiken beste ondorio bat, finantza-erakundeek zor publikoaren kontura egiten duten negozio erraldoia, auditatu nahi ez dutena. Beharrezkoa da aztertzea eta ondorioztatzea zor horren zer zati den bidezkoa, nola hartu den, eta noren aldekoa izan den, eta baita ere ea gainkosturik egon den zor horren interesetan.

**Nafarroako zor biziaren bilakaera, 2007-2019**



*Iturria: Espainiako Bankua*

- **Covid-19aren lehenagoko egoera: pandemia ez da krisi ekonomikoaren arrazo nagusia, eragilea baizik**

ELAk azken urteotan salatu izan duenez, doikuntza-politikek murrizketak sustatu dituzte arlo guztietan: lan eskubideetan, gizarte-babesean, osasunean, hezkuntzan, etxebizitzan... Hori guztia gertatu da zerga-politika errentista handienen interes partikularren zerbitzura jarri izanagatik, eta

ondorioz gizarte-desberdintasunak eta pobrezia nabarmen areagotu dira. Hazkunde ekonomikoaren urteetan ere hori bera gertatu da.

Horren ondorioz errentaren banaketa gero eta desorekatuagoa izan da, lanaren errenten kaltetan. Ikusi besterik ez dago Nafarroan gertatu dena, soldata-errentek BPGean duten pisuaren beherakada handiaz ohartzeko.

***Lanaren ordainsarien eta enpresen soberakin gordinaren banaketa BPGarekiko (%)***

***Nafarroan 2000-2017***

	<b>2000</b>	<b>2009</b>	<b>2012</b>	<b>2017</b>
<b>Soldatapeko langileen lansariak</b>	47,00	45,75	42, 85	41,96
<b>Enpresen soberakin gordina</b>	43,03	46,07	48,17	47,72

*Iturria: NASTAT*

Ondorioz erran dezakegu Covid-19 ez dela izan oraingo krisi ekonomikoaren arrazoi nagusia, eragilea baizik. Ekoizte-ekonomiak bazituen lehenagotik dezelerazio-zantzuak, eta finantza-ekonomiak zartada handiak hartuak zituen. Ekonomia, orohar, arnasestuka zihoan; eta pandemiak onik ateratzeko indarrrik gabe harrapatu du.

- ***Aurrekontu- eta zerga-politika, errenta handien eta enpresen neurrira***

Nafarroako zerga- eta aurrekontu-politika (Estatuan bezala) finantza-erakundeen, enpresen eta kapitalaren neurrira eginda dago.

Aurrekontu-politika austeritate-politiken baldintzapean dago. Baldintza horien artean gastuaren araua eta defizit eta zorraren mugak daude. Eta Nafarroako Gobernuak politika hori betetzeaz gain, aldeztu ere aldeztu du, behar den guztietan.

Aurrekontu-muga horiek guztiak, eta bereziki gastu-araua, gastu publikoa murrizteko tresnak dira, egoera ekonomikoa hobea edo okerragoa izan, beharrian sozialetara doazen aurrekontu-partidak handitu ez daitezten. Gastuaren araua diseinaturik dago erakunde guztien baliabide erabilgarrien gehikuntza oso txikia izan dadila "behartzeko". Aurrekontu-esparru hori bateraezina da ikuspuntu aurrerakoiekin.

Gainera, gastuaren araua aurrez aurreko eraso da Nafarroako erakundeek beren aurrekontuez erabakitzeke duten ahalmenaren aurka.

Muga horiez gain, hor ditugu zor publikoa eta aurrekontuko 10 eurotik 1 daramaten ezkutuko bidesaria; beraz, osasunean eta hezkuntzan egiten den gastua, Europako gainerako lurraldeen aldean, benetan eskasa da. Osasunaren arloko gastu publikoa BPGaren %5,1ekoa zen Nafarroan 2017an (eskuragarri dagoen azken datua), eta EB-28ko batez bestekoa aldiz %7,0koa, eta beste estatu batzuetan, Frantzia kasu, %8,0 bideratzen zuten horretara. Horregatik zegoen Nafarroa EB-28ko posturik txarrenetan. Azken batean, Nafarroako aurrekontua ia %40 handitu beharko litzateke osasunean, eta %50 hezkuntzan, Europako gastuaren batez bestekoaren pare jartzeko.

Zerga-politikari dagokionez, Nafarroan zerga-sistema eskasa eta bidegabea dugu, eta enpresei iruzurra egitea ahalbidetzen die. Datuek erakusten dute Nafarroan gutxi biltzen dela (EB-28ko batez bestekoa baino 1.640 milioi gutxiago), modu bidegabean (zuzeneko zergetan 10 eurotik 7 lanaren errentetatik datoz), eta, gainera, iruzur egiteko aukera ematen zaie enpresei eta enpresa-errentei (urtean 5.400 euro gutxiago aitortzen dituzte lanaren errentek baino).

Horren erakusgarri zera dugu: BPGaren hazkundera, 2007 eta 2019 bitartean, %20,1koa izan arren, sozietateen zergaren bilketa %53,8 jaitsi da, eta PFEZaren bilketa %41,6 handitu.

**Diru-bilketaren eta BPGaren bilakaera (2007-2019)**

	2007	2019	Dif. (%)
<b>BPG</b>	18.193	21.851	+20,1%
<b>Sozietateen zerga</b>	593	274	-53,8%
<b>PFEZ</b>	1.083	1.533	+41,6%


*Iturria: NASTAT, Nafarroako Ogasuna*

Nafarroako zerga sistema enpresen neurriira eginda dago, eta batez ere enpresa handien neurriira.

Alde batetik, Nafarroa da Sozietateen Zergaren bidez gutxien biltzen den lurraldea Estatu osoan, hau da, enpresek gutxien ordaintzen duten lurraldea. 2017an, eskuragarri dagoen azken datua, Nafarroan Sozietateen Zergaren bidez bildu zena BPGaren %1,3aren parekoa izan zen (presio fiskala). Estatuko gainerako tokietan presio fiskala %2,3koa izan zen, eta Europako batez bestekoa %2,7koa, Nafarroakoa baino 1,4 puntu gehiagokoa.

Beste era batera esateko, Nafarroan dauden enpresek Estatuan duten presio fiskal bera izango balute, Sozietateen Zergatik 452,9 milioi euro bilduko lirateke, eta Europako batez bestekoaren presio fiskal berarekin 531,7 milioi euro bilduko lirateke.

**Sozietateen Zergaren presio fiskala, 2017**



*Iturria: NASTAT, Nafarroako Ogasuna, Eurostat, Eustat.*

Bestalde, enpresen negozio-bolumena zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da tasa nominalaren (araudiak ezartzen duen ehunekoa) eta tasa efektiboaren (benetan ordaintzen duten

ehuneko) arteko aldea. Hau da, zenbat eta enpresa handiagoa izan, orduan eta handiagoa da Nafarroan ematen zaion pribilegio fiskala. Fundazioek eta beste sozietate batzuek %10eko tasa dute, baina %9,48 ordaintzen dute batez beste; milioi 1 eurotik beherako negozio-bolumena duten enpresek %19ko tasa nominala dute, baina %14,51 ordaintzen dute batez beste; 1 eta 10 milioi arteko negozio-bolumena dutenek %23ko tasa nominala dute, baina %15,9 ordaintzen dute batez beste; eta enpresa handiek (10 milioi baino gehiagokoak) %28ko tasa dute, baina %14,88 ordaintzen dute batez beste.

***Tasa nominala eta efektiboa, enpresaren tamainaren arabera (2017)***

<b>Negozio-bolumena</b>	<b>Tasa nominala (%)</b>	<b>Tasa efektiboa (%)</b>	<b>Diferentzia (%)</b>
Fundazioak eta beste batzuk	10	9,48	5,2
Milioi 1etik beherakoak	19	14,51	23,6
1 eta 10 milioi bitartekoak	23	15,90	30,9
10 milioitik gorakoak	28	14,88	46,9

*Iturria: Nafarroako Ogasuna*

Nafarroako fiskalitatearen egoera hain bidegabea dela kontuan harturik, ELAk uste du onartezina dela egungo legegintzaldian onetsi den neurri fiskal bakarria ondarearen gaineko zergatik enpresa ondarearen karga kentzea izatea, enpresen gaineko zerga-zama are gehiago arinduz. Era berean, sindikatuak deitoratu egin ditu Ogasun-kontseilariaren enpresei zergak igotzea justifikaezina dela esanez egindako adierazpenak, eta hori Covid-19ren eraginez diru-bilketa %20 jaitsiko zela iragarri zuen aste berean.

**1.2.- Politika neoliberalak Europako esparruan eta nazioarteko esparruan**

Covid-19k sortutako egoerari aurre egiteko, Europako Banku Zentralak *Pandemia Larrialdiko Erosketa Programa* iragarri zuen. Horren bidez, 2020. urtean, 750.000 milioi euro jarriko ditu (lehenago beste 120.000 milioi mobilizatu ziren) bankuen eta enpresa handien eskuetan. Gainera, bankarentzako likidezia-mekanismoak iragarri ditu, eta 3 bilioi eurorainoko mailegua emanen diote, interes-tasa negatiboan (-%0,75). 2008an esan zuten bezala, modu horretan diru hori jendeari eta enpresei helaraziko zaiela argudiatu dute. Hori guztia, hain zorpetze-maila handia dagoen egoera honetan.

Europako esparruan onetsitako programek eta laguntzek, osasun-larrialdia amaitu ondoren, kontrola eraginen dute estatu eskatzaileen gainean, bai eta beharrezko doikuntzak ere, EBko Egonkortasun eta Hazkunde Ituna bete dezaten. Lehenago beste horrenbeste gertatu zitzairen Greziari, Irlandari, Portugalari, Txipreri eta Espainiako Estatuari, eta orduan bezala austeritate-neurriak hartu beharko dituzte, zorrak amortizatu ahal izateko.

Gainera, aurrekoaren ondorio zuzena da herrialdeek, beren zerga-politika garatzeko, izanen duten subiranotasun falta. Austeritate-neurrien eraginez estatukideek beren gastu publikoa mugatu beharko dute, baita bilketa handia den garaietan ere. Hau da, gastu arauaren ildoko politikak areagotuko dira.

Une erabakigarrian gaude. Izan ere, jokoan dugu koronabirusak pizturiko krisiaren irtenbidea zer oinarri ekonomiko eta sozialetan finkatuko den. Eta hori egin beharko dugu alarma-egoerak ezarri digun konfinamenduan, herritarren mobilizazioaren zeregina izugarri zailduz, eta krisi honi irtenbide soziala emateko bultzada nabarmen mugatuz.

Gizarte-larrialdiari aurre egiteko Estatu mailan onesten ari diren neurri sozialei dagokienez, esan beharra dago ez direla nahikoak. Espainiako eskuinaren jarrera oso bortitza izan da, gutxieneko errentaren aurka eta etxegabetzeak geldiaraztearen aurka; hori dela-eta, hartzen diren neurriek benetan direna baino aurrerakoiagoak dirudite. Hala ere, benetako kontua da Estatuaren ahalegina gizarte-beharretarako, BPGarekiko, Europar Batasuneko txikienetakoa dela.

### **1.3.- Krisi-garaian argi ikusten da zein den benetan funtsezkoa dena: sektore publikoa**

Mundu-mailako pandemia honek agerian jarri du zer den benetan funtsezkoa gizarte batean eta zer ez. Eta funtsezko kontuak biziari eustea da, eta baita zainketa-lanak ere.

Politika publikoek, ordea, lehiakortasunaren diskurtsoa lehenetsi dute; eta erakundeak enpresen interesen zerbitzura jarri dira. Zainketa-lanak bigarren mailakotzat hartu dira, eremu pribatura mugatuta, prekarizatuta eta, batez ere, emakumeen ardurapean. Beharrian sozialak estali beharrean, enpresa pribatuen negozioa sustatu da, arlo horretan ere.

Urte anitzetan arlo publikoaren aurka egin dute, eta arlo pribatua hobeki dabilela errepikatu digute, eta beharrezkoa dela liberalizatzea, pribatizatzea eta aurrekontu publikoak murriztea.

Oraingoak bezalako garaiak iristen direnean, buru-belarri aritzen den sektorea, erantzuna ematen saiatzen dena, arlo publikoa dela ikusten da. Adibide gisa hor dugu osasun-sistema publikoa, izurritea geldiarazteko funtsezko tresna bilakatu dena. Zalantzarik gabe, eta lehen adierazi dugun bezala, osasun-sistema publiko bakar bat ere ez zegoen behar bezala prestatuta Covid-19ri modu egokian erantzuteko, baina egia ere bada azken hamarkadan aurrekontu publikoetan aplikatu diren murrizketek egoera okerragoan utzi digutela osasun-sistema, baliabide gutxiagorekin eta prekarietate gehiagorekin.

Nafarroa da osasungintzara baliabide gutxien bideratzen duen Europako lurraldeetako bat. Gastua %37 handitu beharko luke, batez bestekora iristeko bakarrik. Ondorioa argia da: baliabide material eta pertsonal gutxiago, lan-baldintza prekarioez gain. Horren erakusgarri da ospitaleetako ohe-kopurua %30 handitu beharko litzatekeela, OCDEko batez bestekoa berdintzeko; medikuen ratioa OCDEko batez bestekoa baino txikiagoa dela; edo Osasunbideako langileen ia erdiak aldi baterakoak direla.

Hausnarketa hori ez da soilik osasunaren-arloaz, ezta zainketa edo hezkuntza-arloez ere. Sektore estrategikoak, hala nola finantza, telekomunikazio, energia, ikerketa eta abar, pribatizatu dira; eta hori dela-eta, botere publikoak funtsezko tresnarik gabe geratu dira, gaur egun behar diren politikak martxan jarri ahal izateko. Sektore publiko indartsua behar da sektore estrategiko guztietan.



### **1.4.- Mundu mailako krisi baten aitzinean, ekonomia globalizatua ahulagoa da, tokiko ekonomia baino**

2008ko finantza-krisiak eta koronabirusak agerian utzi dituzte globalizazioaren eta ekonomia-nazioartekotzearen aldeko apustuaren mugak. Nazioarteko merkataritzaren menpeko sektoreek, edo turismoa bezalako beste jarduera batzuek, anitzez eskala handiagoan jasaten dituzte munduko krisiaren ondorioak, benetan funtsezkoak diren sektoreek edo gure lurraldeko beharrei erantzun nahi dietenek baino.

Ez dakigu krisi globalak noiz arte iraunen duen, baina pentsatzekoa da nazioarteko merkataritza-ereduaren gaineko eragina garrantzitsua izanen dela. Eta alde horretatik funtsezkoa izanen da gure ekoizte-sistema gure lurraldean dauden beharrei erantzuteko modukoa izatea. Beste era batera esateko, agerian geratu da estrategikoa dela funtsezko jarduerak gure lurraldean mantentzea.

Beraz, ezinbestekoa da ekoizte-eredua aldatzea; sistemaren eraldaketa sozial eta ekologikoari heltzeko, hurbileko ekonomiari lehentasuna emateko, eta ekonomia birkokatzeari lehentasuna emateko.

## **2.- Nafarroako Gobernuak Covid-19aren osasun-krisian hartu dituen neurriak**

ELAren ustez, egoera horren aitzinean jarduteko orduan, Nafarroako Gobernuak enpresen interesak lehenetsi ditu, zenbaitetan osasun publikoaren gainetik ere. Hona hemen Nafarroako Gobernuak CENekin lerrokaturik dagoela egiaztatzen duten zenbait erabaki:

- Funtsezkoak ez diren jarduerak geldiaraztearen aurkako jarrera: osasun krisiaren unerik gogorrenetan, funtsezkoak ez diren jarduerak geldiaraztearen aurka agertu zen Nafarroako Gobernuak. Madrilgo Gobernuak xedatu behar izan zuen funtsezkoak ez ziren jardueren geldialdia. Tamalez, Nafarroako Gobernuak informazio-ohar bat eginez erantzun zuen, neurriaren eragina mugatzeko eta itxierak ahalik eta enpresa gutxiagori eragin diezaien saiatzeko. Egun horietan Maria Chivite presidenteari entzun genion Pedro Sanchezzi malgutasuna eskatzen, Nafarroak funtsezko jarduerak erabaki zitzaizkion. Hala ere, sentitzen dugu presidenteari ez entzutea malgutasun hori bera eskatzea Madrili, adibidez, Nafarroako superabita behar sozialetara bideratzeko edo gastu-sabaia handitzeko. Badirudi Nafarroako Gobernuak autogobernuaren aldarrikapena patronalari interesatzen zaionerako bakarrik gordetzen duela.
- Enpresei zehapenik ez jartzea, Covid-19ri aurre egiteko babes-neurriak ez betetzeagatik. Kontuan harturik inoiz ez bezalako osasun-krisi batean murgilduta gaudela, eta lantokiak kutsatze-fokuak direla; Covid-19ri lotutako laneko segurtasun eta osasuneko arau-hausteengatik ezein enpresa zigortu ez izana lotsagarria izan beharko zen Nafarroako Gobernuarendako. Enpresen gaineko kontrol falta hori nabarmenagoa da, herritarrak konfinamenduan mantentzeko erabilitako polizia eta militar guztien aldean. Horren harira, Nafarroako herri eta hiri askotan armadaren presentzia salatu du ELAk, beharrezkoa ez baita; horren helburu bakarra armadaren irudia hobetu eta erakunde humanitario gisa aurkeztea izan da, nahiz eta hori bateraezina izan edozein armadak duen eginkizunarekin.
- Aurkeztutako ia ERTE guztiak baimentzea: Administrazioak ez du egiaztatu ERTEek arrazoi justifikaturik zuten ontzat emateko. Jarduteko modu horri esker, enpresa batzuek egoera

hori baliatu ahal izan dute lan-eskubideei kalte egiteko, horretarako bidezko arrazoirik izan gabe.

- Azpikontrata publikoetan ERTEak ez eragozteak: Nafarroan ordezkartzarrik handiena duten lau sindikatuek (ELA, LAB, UGT eta CCOO) Nafarroako Gobernuari eskatu genion, 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 34. artikuluari helduz, azpikontrata publikoek aurkeztutako ERTEak ez baimentzeko, baina Gobernuak ez zuen eskaera hori onartu.
- Ostegun Santuan dendak irekitzearen aldeko jarrera: arlo horretan, eta berriz ere lau sindikatuek eskatutakoaren aurka, Nafarroako Gobernua, patronalarekin bat, dendak Ostegun Santuan irekitzearen alde agertu zen, azkenean gertatu zen bezala.
- Enpresendako norbera babesteko ekipamenduen (NBE/EPI) erosketaren eta banaketaren kudeaketa pribatua: Nafarroako Gobernuak, enpresentzako norbera babesteko ekipamenduen erosketaren eta banaketaren kudeaketa publikoa egin beharrian, kudeaketa pribatu baten alde egin zuen. Horrela, Sodenaren eta CENen arteko akordio bat sustatu zuen, zeinaren bidez Albyn Medical enpresak 2 milioi euroko laguntza jaso baitzuen, esleipen publiko baten prozedura jarraitu gabe.

Gobernuaren erabakiei buruz egiten dugun balioespen negatiboa gorabehera, ELAk nabarmendu nahi du Gobernuak elkarrizketa etengabea mantendu duela sindikatuekin, gure jarrera kritikoa horretarako traba izan gabe. ELAren ustez, Gobernuaren jokabide hori arras normala izan beharko litzateke; baina, hala ere, kontrastea egiten du UPNren gobernuen garaiko jokabideekin, edo baita gaur egun EAEn gertatzen denarekin ere, non Eusko Jaurlaritzak izugarritzko beligerantzia baitu erreibindikazio-tankerako sindikalismoarekiko. Era berean, ELAk positibotzat jo ditu Covid-19ren kudeaketan Gobernuak hartutako neurri hauek:

- Prebentzio-zerbitzuen koordinazio publikoa ezartzea. Neurri hori indartu egin behar da ISPLNaren bitartekoak areagotuz, baita ezarritako babes-neurriak betetzen ez dituzten enpresen aitzinean hertsatzeko ekintzak ere.
- Funtzio Publikoak telelana ezartzeko, eta hura mantentzeko hartutako neurriak, gutxienez deskonfinamenduaren lehen fasean. Hala ere, Hezkuntza eta Justizia alorrak baztertzea, eta haien esparruetan benetako zehaztapena adosteari uko egitea izan ziren arrazoiak sindikatuaren desadostasuna agertzeko, Administrazioako langileen baldintzak arautzen dituen Foru Aginduaren edukiarekiko.

### **3.- “Nafarroa Suspertzeko Plana”: ez dugu bidezko irtenbiderik izanen, fiskalitatea aldatu gabe**

Nafarroako Gobernuak "Nafarroa Suspertzeko Plana" deritzona bultzatzeko erabakia iragarri du, eta lehen agiri bat bidali dio Kontseilu Ekonomiko eta Sozialari. Dokumentuak berak aitortzen du alde zuzeneko ohar batzuk direla, eta ez dela dokumentu itxi bat. Agirian jaso ez den gaietako bat negoziazio-esparruen zehaztapena da.

Dokumentuaren edukiari dagokionez, dokumentu generikoa da, eta bertan oinarriak ezarri nahi dira, gero etorkizunera begira hartu beharreko neurriak finkatu daitezken; hala ere, dokumentuaren zatirik zabalena Gobernuak pandemia hasi zenetik hartu dituen neurrien zerrenda da, eta hein handi batean bere buruaz miresteko moduan egina.

Hala ere, dokumentu honetan aipagarriena da, hain zuzen, ez dakarren hura, ez baitzaio aurrekonturik esleitu, eta ez da aipatu ere egin nola finantzatuko diren hemen hartutako neurriak. ELAk oso argi dauka, egoera honetatik irteera justu eta sozial bat bermatzeko, beharrezkoa dela Nafarroako fiskalitatea goitik behera berrikustea, eta horretarako argitu behar den lehenengo gauza da ea Nafarroako Gobernua horretarako prest dagoen. Dena dela, dauden zantzuak ez dira oso itxaropentsuak, Gobernuak Enpresa Ondarearen gaineko Zerga ezabatu baitu, eta Ogasun-kontseilariak enpresei zergak igotzearen aurkako adierazpenak arestian egin baititu.

## 4.- ELAren proposamenak

### **4.1.- Diru-sarrera publikoak ugaltzea:**

- Sozietateen gaineko Zerga: kenkariak ezabatzea eta 2019ko aitorpenean errekaru berezi bat ezartzea, urte horretako irabazien %20ren parekoa. Modu horretan 400 milioi lortuko lirateke Nafarroan.
- Ondare, Aberastasun eta Fortuna Handien gaineko Zerga. Errekargu berezi bat ezartzea, progresiboa, %1 eta %10 bitartekoa. Modu horretan 500 milioi bilduko lirateke Nafarroan.
- PFEZ progresiboago bat: eskala aldatzea, gehieneko tasa marjinala %60ra eramanez, eta kapitalaren tarifa espezifikoak ezabatzea. Kuantifikazioa eskalaren progresibitatearen igoeraren arabera izango litzateke.
- Iruzur fiskalari aurre egitea, ikuskatzaileen kopurua handituz, eta soldatapekoak ez diren errenta guztiak ikuskatzeko betebeharra sartzea, aurre-inskripzioaren epearen barnean.
- Azpiegitura handiak geldiaraztea (Abiadura Handiko Trena, Nafarroako Kanala...) eta diru hori aurrekontu sozialetara bideratzea.
- Zorpetze-maila handitzea, aparteko gastuari aurre egiteko; eta horrek esan nahi du ezin direla onartu defizitaren, zorraren eta gastu-arauaren mugak.
- Banka publikoa Nafarroan sortzea.
- Banka pribatuari zorraren zilegi ez den zatia erreklamatzeko.

### **4.2.- Sektore publikoa sendotzea:**

- Sektore publikoko plantillak ugaltzea (Kontuen Ganberaren arabera 3.000 postu amortizatu dira Administrazioan azken 5 urteetan).
- Administrazioako aldi baterako langileen enplegua finkatzea (sektore publikoaren behin-behinekotasun-tasa %40 ingurukoa da).
- Azpikontrataturiko sektoreak lehengoratzeko, besteak beste, zahar-egoitzak, etxez etxeko arreta, anbulantziak, garbikuntza... zerbitzu horietan gaur egun diharduten langileen enplegua subrogatuz eta finkatuz, eta iraganeko egindako murrizketak deuseztatuz.

- Osasungintzan eta Hezkuntzan, Europako batez bestekoarekiko, dugun aurrekontu-defizita 3 urtetan berdintzea. Hau da, Osasungintzan 427 milioi eta Hezkuntzan 338 milioi euro.
- Lehenagoko legealdian onetsitako Kontratu Publikoen Legea osorik garatzea, eta Kontratazio Junta berehala eratzea.
- Foruzaingoak eskumenak bereganatzea, eta horrekin batera beste polizia-indarren atzera biltzea.
- Babes Zibil eta Larrialdietako eginkizunak garatzeko plan bat prestatzea, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzua indartuz.

#### **4.3.- Diru-sarrera nahikoak bermatzea, eta bizia nahiz zainketa-lanak erdigunean jartzea:**

- Errenta bermatuaren zenbatekoa LGS/SMIren %100ean (1.108 euro) ezartzea bakarrik bizi diren pertsonentzat, eta %50eko iguera bizikidetz-unitateko pertsona gehigarri bakoitzeko.
- Errenta Bermatua eskuratzeko baldintzak malgutzea, haren beharra duten denek hura eskuratzeko izan dezaten.
- Pentsioak hilean 1.080 euroraino osatzea.
- Langabeei LGS/SMIren pareko diru-sarrerak bermatzea.
- Covid-19ak eragindako ERTEetan soldataren %100eraino osatzea.

#### **4.4.- Eskubideak aitortzea:**

- Gizarte Zerbitzuen Legeen bidez bermatzea menpeko egoera guztiak sistema publiko, unibertsal, doako eta kalitatezko batez estaliak izanen direla. Eta hori eskubide subjektiboa izatea.
- Osasun-arreta pertsona guztiei bermatzea, norberaren administrazio-egoera zein den begiratu gabe.
- Alokairu sozialeko etxebizitza eta oinarrizko ondasunak eskuratzeko eskubide subjektiboa bermatzea, eta akura-prezioari muga jartzea.
- Heriotza duina izateko eskubidea aitortzea.
- Etxeko langileen eskubideak gainontzeko langileen eskubideen parean jartzea (Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorra, Langileen Estatutua eta Lan Osasuna).
- Etxean egin beharreko lanetan erabiltzen diren denborak berrantolatu eta lankidetzan aritzea.
- Pertsona guztiak erregularizatzeko asmoa bultzatzea, errolda bermatuz.
- Espetxeen eskumena hartzea, presoei zerbitzu hobea emateko asmoz.

- Diskriminazio-mota guztiak eragozte, dela jatorriagatik, dela arrazagatik, dela orientazio sexualagatik, dela genero-identitateagatik.
- Nafarren hizkuntza-eskubideak bermatzea, Euskararen Legea indargabetuz eta zonifikazioa ezabatuz.

#### **4.5.- Kalitatezko enplegua bermatzeko neurriak:**

- Azken lan-erreformak indargabetzea, negoziazio kolektiboaren estatalizazioa barne, nafar langileei haien lan-baldintzak erabakitzea eragozten baitie.
- Lanaldia 35 ordua laburtzea (gutxienezkoa 20 ordukoa).
- Gutxieneko soldata 1.200 eurokoa izatea.
- Gizonen eta emakumeen soldata-arrakala berdintzea.
- Denbora partzialeko lana kentzea, gehienbat emakumeendakoa baita.
- Merkataritzako langileek igande eta jai-egunetan atsedena nahitaez hartzea.
- Eskola-jantokiak hezkuntza-sistemaren atal gisa txertatzea, zerbitzuaren kalitatea kontratazio publikoaren bidez bermatuz.
- Elkarrizketa Sozialeko Kontseilua desegitea.
- Nafarroako Lan-arloko Auzitegia berreratzea, hemendik goiti gatazkak ebazteko organoa izan dadin, bazterketarik gabe eta jardute demokratikoago eta inpartzialago baten bidez.
- Industria-politika jakin bat garatzea, non jaso behar diren aurrekontu-partiden artean enpresak nazioartekotzeko, ekonomia birkokatzeke eta enplegu berdeak sustatzekoak izanen baitira.
- Nafar nekazariendako lan-baldintza duinak ezartzea, eta ikuskapen-kopurua handitzea, eskulanaren sasi-arazoa konpontzearen.

#### **4.6.- Lan-ezbeharren aurkako neurriak**

- Lan-harremanetarako eta gizarte-babeserako esparru propio bat --publikoa eta bermetzailea-- sortzea, ugazaben mutualitateen esku-sartzeetatik libre, eta Gizarte Segurantzaren transferentzia barne hartuko duena.
- Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzaren transferentzia eskuratzea, Parlamentuak 2018ko urrian onetsitako erakunde-adierazpenarekin bat etorriz.
- ISPLNren eta Lan Ikuskaritzaren plantilletan 50 langile gehiago sartzea, plantillak Europako ratioaren mailarekin parekatzeko. Eta ikuskapen-jarduera arin eta erabakitzailea antolatzea.
- Lan-osasuneko politika publikoetara bideratzeko diren aurrekontu-partidak handitzea, eta administrazioaren esparru bakoitzerako gutxieneko diru-esleipen bat ezartzea.

- CEN, UGT eta CCOOko Prebentzioko lurralde-ordezkarari finantzaketa publikoa kentzea (400.000 €). Ez dago inon jasota figura hori eraginkorra denik, ez bada erakunde horietako langileak eta jarduerak diru publikoarekin finantzatzeko.
- Agente kantzerigeno, mutageno eta ugalketarako toxikoekiko esposizioa dagoen enpresetan kontrol- eta jarraipen-ekintzak egitea, okupazio ondoko zaintza ere barne hartuz.
- Jarduera arriskutsuak eta arrisku psikosozialekiko esposizioa duten enpresendako erregistroak sortzea, lan-segurtasun eta osasunaren arloko betebeharrak benetan betetzen diren egiaztatzeko.
- Segurtasun-neurrien faltagatik istripu larriak eta hilgarriak izan dituzten enpresen izenak jendaurrean zabaltzea, eta baita istripuen arrazoiak eta erantzukizunak ere.
- Errepide-sareko puntu beltzak konpontzea, bideko lan-istripuak al bait gehien gutxitzeko.
- Erreserba-funtsak sortzea, amiantozko materialak erretiratzeko, eta biktimei kalte-ordainak emateko.
- Kontratazio publikoan parte hartzen duten enpresei lan-segurtasun eta osasunaren arloan gutxieneko inbertsioen betekizunak eskatzea. Gainera, murriztapenak edo erreparoa jarriko zaizkie arlo horri buruzko errekerimenduak jaso edo azpikontratazioa egiten duten enpresei.

#### **4.7.- Sistemaren eraldaketa sozial eta ekologikoa**

- Enpresetako CO2 isurketak gutxitzeko plan bat prestatzea, non Castejongo zentral termikoak ixteko plana jasoko den.
- Nafarroako ingurumenaren eta milaka herritarren segurtasunaren aurka eraso larria egiten duten proiektuak bertan behera uztea; hala nola, Abiadura Handiko Trena, Nafarroako Kanala, Esako urtegiko euste-horma igotzea, Baztango Aroztegia jauregia eta Bardeetako tiro-poligonoa.
- Apustua egitea tokiko produktuen (0 km) eta elikadura-subiranotasunaren alde. Helburua beti ere elikadura-segurtasuna eta kalitate-eredu osasungarria bermatzea izanen da, elikagaiak tokian tokiko sareen bidez banatuz eta lan-baldintza duinak ziurtatuz.
- Nafarroako lurraldeen artean dagoen desorekari eta jendegabetzeari buru egitea.

### **5.- Gizarte-mobilizazioa sustatzea, austeritate-politikei aurre egiteko**

Dokumentu honetan planteatutako norabidean aitzin egiteko, errotik aldatu behar dira erakunde-maila guztietan aplikatzen ari diren politikak; eta, horretarako, funtsezkoa da gizarte-mobilizazioa. Beharrezkoa da botere sindikal eta soziala eraikitzea, austeritate-politikei aurre egiteko, eta baita Nafarroako, Espainiako eta Europako erakundeek jarraitutako politiken joera aldatzeko ere.

Krisi handiko garaietan, botere politikoaren eta ekonomikoaren arteko aliantzak indar sozialak indargabetu nahi ditu, eta doikuntza-politiketarako estaldura zabala bilatu. Horretarako itun sozial

zabalen beharraren amua erabiltzen dute (Moncloako Itunak, esaterako). Baina itun horiek ez dute langile klasearen interesen aldeko edukirik.

Indar sindikalak neutralizatzeko helburu hori bera lortu nahi dute gobernuek, ituntze eta elkarrizketa sozialeko politiken bidez. Ziur aski Nafarroa izan da, bake sozialaren truke, erakunde sindikalen finantzaketa muturreraino eraman den Estatuko guneetako bat. Oroitu behar da UGT eta CCOOko 120 karguk baino gehiagok jasotzen zutela beren soldata Nafarroako Aurrekontu Orokorren kontura.

Horregatik, Nafarroako langileentzat elkarrizketa soziala onuragarria ez dela ikusita, beharrezkoa da aktibazioan eta mobilizazioan oinarrituriko aliantza sindikal eta soziala eraikitzea, austeritate-politikei hobeki buru egin ahal izateko. Gainera, politikagintzari interpelazioa egin behar zaio, neurri horiek aurrera eraman ditzan; eta bereziki ezkerari, aldarrikapen sindikal eta sozialen isla izan dadin; hau guztia gai nagusi gisa kokatuz, eta gai hauei buruzko eztabaida polarizatuz.

Horrekin batera, elikagaien, energiaren, finantza etikoen, tokiko txanponen eta abarren subiranotasunaren bidean urrats zuzenak eta eraginkorrak egiten dituzten praktiken eta alternatiben garapena eta parte-hartzea bultzatu behar dugu. Hori guztia borroken eta antolakundeen unibertso oso bat da; eraldaketa sozial, ekologiko, feminista, demokratiko eta kultureko zerumugari begira.







[www.ela.eus](http://www.ela.eus)

**ELA**  
**EUSKAL SINDIKATUA**